

## SECCIÓN AMENA



## SIMÓN MAKILLA

## (Ipuña)

—Peru, esan giñai non jayo dan gizona,  
 Zelan izango daben baña ez azkena;  
 ¿Ez da gauza andia fortuneak joten  
 Dabezanak, sarritan direala illten?  
 ¿Ez dakizu goisean zazpiterdietan  
 Jazo jakun kontu bat guretik berpertan?  
 ¿Oyan ez dogu bada geuk billatu illa,  
 Gaur loteriak urten da Simon Makilla?

—Santa bere andrea egun guztietan  
 Lau bidar makilleaz ebana zurretan?  
 ¿Ill da beraz alako gizon borrarua,  
 Erren, begi ezkel; ta lepo makurtua?

Peru, aŕe berbera ez Jesús ta Amen,  
 Geratu da otz otzik, beingo beingo baten;  
 Santa asi danean barandatik deika,  
 Lau gizon joan gara arin bai arinka;  
 ¿Eta loteriako listez eskuan,  
 Ez dogu bada topau bizi zan moduan?

—Seguru atsegiñen andiz ill da Simon,  
 Agaitik alegere Santa leike egon.

—Askok diñoenetik ei dago poz pozik,  
 Urten deutzazaiako loteria on bik,  
 Batetik joan jakoz gaur ogi bildurrak,  
 Bestetik Simon illaz ill betiko zurrak

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

